

Araitz Imaz Dorronsoro

E maila • **Aipamena**

Kaixo!

Araitz Imaz Dorronsoro naiz, 11 urteko neska beasaindarra. Andramendi Ikastolako ikaslea naiz eta aurten LH6 egiten ari naiz. Oso gustoko ditut atletismoa, euskal dantzak eta Erreala. Baita lagunekin ahal dudan denbora gehiena igarotzea ere. Lehen aldia da Beasaingo Idazlehaketan aipamena jasotzen dudana eta asko poztu naiz. Ea gustoko dituzuen nire bertsoak.



Doinua: Orioko balearena

BERTSOLARITZA

Munduan zehar daude
hainbat bertsolari
horietatik asko
kantuz herriz-herri.
Idatziz ere noski
hainbat bertso berri
hunkitu ta pozteko
entzule denari (bis)

Aurtengoa dugunez
urte berezia,
bertsozaleentzako
urte bat handia,
nahiz eta oraindik baden
nahiko komeria,
badator txapelketa
sorpresaz josia (bis)